

Juan Mari Feliu, Euzko Gaztediko kide ohia

«Dibertigarria ere izan zen poliziaren zaintzari iskin egiten ibiltzea»

Zigorra du jatorri, gerrak zigorturik heldu baitzen Feliu Dord familia Iruñera. Zigorra izan du lagun urte askoan, kartzela eta desterrua ezagutu baititu Juan Marik, abertzaletasuna lagun eginik. Zigor horiekin batera, sari izan du mendia, Frantziako Alpeetan eta Kataluniako Pirinioetan gurasoak jaiorik...



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Feliu Dord... hemengoa zara, katalana zara...

Iruñean jaioa naiz, Motxuelo auzoan. Ama frantziarra nuen, Saboiakoa, Alpeetakoa; aita katalana, Bergakoa, Pirinioetan. Manresan elkar ezagutu zuten eta bertan ezkondu ziren. Aita ERCkoa zen, Manresako kultura zinegotzia gerra garaian, eta 1939ko erretirada etorri zenean Ipar Kataluniara igaro zen funtzionario eta politikariekin batera. Batera eta bestera ibili zen bi urtez, eta bitartean, ama, aitatxi-amatxiak eta nire anaia gehiena Donostian zeuden, senideen babesean. Aita 1941ean itzuli zen Manresara, bertako batzuen bitartekaritza baliatuz, baina Kataluniatik 200 kilometrorra bizitzera zigortu zuten. Iruñean kokatu ziren eta bertan jaio nintzen ni.

Gerra historia!

Aita lasaia zen aiurritz. Neketan ikusiko zenuen hura haserre. Andetakoak gertatu zenean ikusiko nuen benetan amorratuta. Guardia zibilak ez ninduen bakean utzi, behin eta berriz hartu ninduen atxilo. Triakornioak, azkena, 25.000

pezetako isuna pagatu ez nuelako etorri zitzaizkidan. Aitak aurre egin zien, eta kasik kartzelara lagundu ninduen. Orduko hartan hiru egun eduki ninduten zuloan. PNVk dirua bildu, isuna pagatu eta irten nintzen. Ez naiz debaldetan ari hau kontatzen, zeren eta etxera etorri nintzenean aita solasean hasi baitzitzaidan. Esan zidan txikitandik zetorkidala su txiki bat, sei-zazpi urte nituela galdetu niola zein hizkuntzatan solasten ziren gure auzoak. Orkin zuten deitura auzoek, "pilotariak" ezizenez, etxean baten bat pilotaria baitzuten. Euskaraz solasten ziren, eta aitak esan omen zidan historiaurreko hizkuntza bat ibiltzen zutela, eta horrek erabat harritu ninduela. Euskara zen hizkuntza hura, jakina.

Ama Alpeetakoa, aita Piriniokoa, ezinbestean mendizale zu.

Zaila ere ez-eta! Ni baino lehen, anaia gehiena, Markos, hasi zen Oberenan, eta haren eskutik joan nintzen ni klub hartara, hamahiru bat urte nituela. Mendian, eguerdian, angelusa errezatzen zen. Eta itzulian, autobusean, arrosarioa. Hura

gehiegi zen! Azkenean, Navarra Kirol Klubera aldatu ginen, eta han besterik zen, han Internazionale, Marseillesa nahiz Boga Boga kantatzen genituen. Bestalde, mendizale zailduen mapak hartu eta euskarazko toponimia itzultzen ziguten. Horrela, nire baitako su txiki hura bizitu eta lama egin zen mendian.

Su txikia lama egin zen... Su hura hauspotu zuenik ez ote zen izan?

Beti da baten bat. Bagenuen auzo bat, biziki preziatzen gintuena. Periko Ezkurdia zen. Abertzalea, gerra baino lehen Iruñeko PNVren uri buru batzarrereko presidentea eta, ondoren, Alava sareko kide. Altzari fabrika zuen, Juan Ajuriagerrak propaganda paketeak igortzen zizkion eta Perikok egur-ohol tontor baten artean ezkutatzen zuen. Perikok jakin zuen baten batzuk Claveria eta Garcia Falcesekin biltzen ginela Jorde Sarasaren etxean, haien Euskalerriko Adiskideen Elkartearen gainean solasean. Laster galdetu zidaten Garcia Falcesek eta Perikok euskal kausaren alde lan egin nahi ote nuen.



Juan Mari Feliu Dord

1942, Iruñea

Euzko Gaztediko kide eta Iruñeko Eusko Bazterrako sortzaileetakoa 1967an. Urte hartan bertan preso hartu zuten Andeetan ikurrina jartzeagatik. Berrir sartu zuten kartzelan 1968an, ikurrina Urbasan paratzeagatik. 1970ean erbesterako bidea hartu zuen. Mugalde inprimategia ireki zuen Jean-Mixel Larzabalekin batera. Bi atentatu izan zituzten. 1977an itzuli zen Iruñera betiko. PNVko zena, EAkoa izan zen gero. Eskalatzaile, mendizale eta eskiatzaile trebea, hainbat liburu, artikulua eta argitalpenen egile da. Memoriak idazten ari dela utzi du: "Euskal kausa eta mendizaletasunaren artean"...

Zer zen euskal kausaren alde lan egitea?

Adiskideen Elkarte hura ez zen PNVren babes ezkutu bat besterik. 1964 zen, eta solasaldi haietara joaten ginen gazte koadrila Bergarako Aberri Egunera joan ginen ondoko urtean. Bitartean, gazte haiek, Gotzon Bergerandi, Fernando Bara, Martine Iturralde... honetaz eta hartaz solasten ginen, mendira joaten ginen, eta Durangaldeko gazte batzuk ezagutu genituen. Euzko Gaztedikoak zirela zioten, itzulingururik gabe. Haiek kontaktuak nahi zituzten nafar jendearekin, eta horrela endredatu ginen. Garai berean, Jose Antonio Urbiola eta Mirentxu Oiarzabal senar-emazteak Parisetik Iruñera itzuli ziren, eta laster nintzen Napar Buru Batzarrean. Iruñeko eta Nafarroako gazte abertzaleak biltzea zen gure lana. Alde batetik, intelektualak zeuden – Claveria, Sarasa, Elena Gereziaga, Gurrutxaga –, euskaltzaleak – Diez de Ulzurrun, Cortes Izal... –, eta gazte ekintzaileok, Urbiola, Garcia Falces, Uztaritzeko Intxausti ahizpak eta beste zenbait. Guk, Adiskideen Elkarteko bilkuretan parte hartzen genuen, baina, bestalde, gazteen bilkurak egiten genituen Gurrutxagaren etxean, Ezkurdia eta Santiago Alonsorekin. Eta Euzko Bazterra sortu genuen 1967an.

Zer izan zen Euzko Bazterra?

Adiskideen Elkartaren gazte saila. 120 lagun izango ginen, unibertsitarioak batzuk – Patxi Zabaleta, Manterola, Serrano-Izko... –, baina orobat mendizaleak denak. Saila osatu genuen eta hitzaldiak antolatzen hasi ginen, *Ama Lur* eta *Pelotari* proiektatzen, eta ezkutuan propaganda banatzen, eta poliziagandik ihesi zebiltzanentzat ezkutalekuak aurkitzen. Oroitzen naiz 1967an Elias Anton, Iñaki Mujika eta Baserri ezizenekoa etorri zirela Iruñera Gipuzkoatik ihesi, eta haiei esker ekintzek indarra hartu zutela. Euzko Gaztedikoak ziren, eta Iruñean izan ziren Urbasakoa arte.

Zer duzu Urbasakoa?

Ikurrinatzar handi bat jarri genuen Urbasan 1968ko Aberri Egunaren bezperan. Atxilotu eta epaitu egin ninduten beste lau lagunekin batera. Hori ez ezik, aurreko urtean Iruñeko Aberri Eguna baino lehen Bi Haizpen beste ikurrina bat jarri izana ere leporatu zidaten, eliz dorreetan jarritako beste hainbat, mugaz alde batetik bestera propaganda pasatu izana... Kartzelara!



Usteko nuen Urbasakoa Espainiako Txirrindulari Itzulian jarritako lehergailua zela.

Hori ere 1968an izan zen, baina geroago. Errepidean sekulako zuloa egin zuen lehergaiak eta ziklistek geratu beharra izan zuten. Itzulia bertan behera utzi ez utzi izan ziren, eta zalaparta handia atera zuen ekintza hark nazioarteko hedabideetan. Napar Buru Batzarreko batzuek bagenekien nondik etorri zen atentatua, beste batzuek, aldiz, ez. Nahaste-borraste galanta, eta errepresioa, jakina. Hala ere, batzuek ez zu-

ten etsi, eta bide horretan saiatu ziren, 1969an Alberto Asurmendi eta Jokin Artajo hil ziren arte.

1969ko Aberri Egunaren bezperan, lehergailuak eskuetan zapart egin zienean. Zuk biak ezagutu zenituen.

Ezagutuko ez nituen, bada! Haien heriotzak dena aldarazi zuen. Nik neuk ekarri nituen gure artera. Asurmendi guztiz irekia zen izaeraz. Artajo, aldiz, isilagoa. Euzko Gaztedikoak ziren. Garai hartan, Euzko Gaztedikook bortxa erabiltzea



ETAkoei gu ere borrokan ari ginela esateko modua zen, bortxa bai, baina inor bahitu edo hil gabe. Bi lagunak hil zirenean dena aldatu zen. Dena dela, gero jabetu nintzen horretaz, garai hartan ni Carabanchelen bainindukaten preso. Zortzi hilabete neramatzan kartzelan.

Behin baino gehiagotan atxilotu zintuzten, dakigunez, eta Andeetako lehen euskal espedizioak ere ondorio gaitzik ekarri zizun. Ikurrina jarri genuen Atunrajun, 1967an, ordu arte inork igo gabeko tontorra. Na-

far ordezkaria nintzen euskal espedizioan, eta neuk eraman nuen ikurrina. Durangoko Euzko Gaztedikoek eman zidaten, Peruko mendietara gindoazela jakin zutenean. "Etorri Durangora, Juan Mari, baina zeu bakarrik!". Joan nintzenean, ikurrina eman eta esan zidaten. "Jar ezazu Amerikako tontor horretan!". Baita jarri ere nik! Itzulian, egokiera izan nuenean, Manuel Irujori eman nion ikurrina Baionan, Jaurilaritzaren ordezkartzan. Irujok esan zidan: "Hartu idazmakina hori eta idatz ezazu ikurrina

Zeruko Argia

"Hamar urte nituela kaputxinoen San Antonioko eskolaniara jo nuen. Latinez, gaztelaniaz eta euskaraz kantatzen zen. Aita Donostia, Isidro Ansorena, Jorge Riezu, Damaso Intza, Hilario Olazaran... ezagutu nituen. Komentuko sotoan egiten zuten *Zeruko Argia* aldizkaria".

Ikurrina Bi Haizpen

"Ikurrina jarri genuen Bi Haizpen Aberri Egunaren kariatara. Egunean bertan, goizean goizago, guardia zibilaren telefono-deia gure etxera, nire anaiari laguntza eske, Goi-mendiko Eskolaren zuzendari baitzen. 'Gipuzkoar' batzuek jarritako ikurrina kentzen laguntzeko eskatu zioten. Anaiari esan nion guardia zibilari adierazteko aste santua zela eta eskalatzaileak mendian zebiltzala, material guztia hartuta. Ez genuela laguntzeko modurik. Lizarrako erregimentuko soldaduak saiatu ziren gure ikurrina kentzen, baina ez zuten lortu. Arratsaldean berandu, Candanchuko mendi eskolako soldaduek kendu zuten".

Benta Haundi

"Donostiatik Iruñera nentorren, Roncalesako autobusean. Tolosan, Benta Haundi parean, ibilgailu ilara. Trafiko istripua ematen zuen, guardia zibilaren botak izara baten azpitik ageri, motorra lurrean... Autobusa gerarazi eta guardia zibil bat igo zen, metraileta eskuan, txoferrari galdezka ea Donostiatik gentozen denok. Baietz, txoferrak. Iruñera heldu eta zain nituen Artajo, Asurmendi eta Jaunarena, kezkatan, urduri. Haiek kontatu zidaten: Pardines hila, Etxebarrieta hila...".

honen historia. Gutunazal itxian gordeko dugu. Euskadi libre denean jakingo dute egin duzuen balentria". Ez alferretan. Hiru hilabete igaro baino lehen jakin zuen poliziak. Atun-rajutik etorri eta zenbait proiektzio egin genituen, eta haietako batean, kon-
turatu gabe, ikurrina age-ri zen argazkia erakutsi! Ikusi behar ez zutena ikusi zuten salatariek, eta sala-keta. Espedizioako denak atxilotu gintuzten, baina nik eraman nuen ez ikurri-na, neu kargutu nintzen. Ordu arte, aitortza, sari eta domina besterik ez zen izan guretzat, baina, handik atzera, zigorra.

Amnistia Internazionalek "Urteko preso" izendapena jasotzeko proposatu zintuen.

Gerra kontseilua egin nahi ziguten, bai-na ez zen gauzatu. Kartzelan mutina egin genuen eta 40 egun eduki ninduten zigor-zeldan. Amnistia Internazionale-ko Alemaniako adarra izendapen hartan tematu zen -Atunrajuko ikurrinagatik, oroz gain-, baina 1968ko apirilaren erdialdera kartzelatik irten nintzenean, besteren bat izendatu behar zutela esan nien, giza maila handiko presoak bai-tzeuden kartzelan. Kalera irten nintzen, baina pertsekuzioa ez zen amaitu. Ni-rekin batera preso hartutako Mikel Erdozain eta biok zaintza estuan eduki gintuzten. Madrileko Segurtasunerako Zuzendaritza Nagusiko brigada bat, eta beste bat guardia zibila, izan genituen zelatan zenbait hilabetez. Dibertigarria ere izan zen poliziaren eta guardia zi-bilen zaintzari iskin egiten ibiltzea. Xa-gua eta katua nola, halaxe ibili gintuzun. Dena den, "xagu" gabe, "sugandila" zen nire ezizena, eta halaxe ibiltzen nintzen, eskapo. Eta zaintza guztiak gorabehe-ra, Carabanchelen ezagututako lau la-gun mendiz beste aldera pasatu nituen 1970ean. Gero, Eiffel dorrearen posta-la jasoko nuen etxean. Gure kodea zen: ongi heldu zirela adierazten zuen.

1970ean Carabancheleko lagunak bes-te aldera gidatzen, laster zinen zu haien pausoan.

Urte haren amaieran zenbait lagun jau-si ziren. Orduan, nire emaztegaia Maria



Azken hitza:

1972

"1972ko azaroan hemeretzi egune-ko gose-greban parte hartu zuen nire emazte Maria Luisak, hainbat errefu-xiaturen deportazioaren kontra. Hura Baionako katedralean, ni inprimategian lanean, eta Aitziber alaba, txiki -txikia, Iruñean"

.....

Luisa [Mangado] eta biok ezkutatu egin ginen. Lehenengo, Donostian egon gi-nen. Maria Luisa Gerardo Bujandak gor-de zuen. Ni, Idoia Estornes eta Josean Aiestaranen etxean izan nintzen, haiek eztei-bidaian abiatu baitziren. Han nen-goela, Intxausti ahizpen laguntza izan nuen, Ipar Euskal Herrira igarotzeko. Eguna zehaztu, eta Andoni nire anaiak eta bi mendizale lagunek Petretxema-ko lepora lagundu ninduten, eta handik Laskunera jaitsi nintzen Andonirekin. Napar Buru Batzarreko Ernesto Torio genuen zain, Donibane Lohizunera era-man ninduen hark. Gero, Maria Luisa ere etorriko zen hara, Pello anaiak eta Ziga ahizpek lagunduta.

Mugalde inprimategian egin zenuen lan Hendaian, tren geltokitik bertara.

Argoiti familiaren inprimategian. Se-gundo Marey genuen saltzailea, urteak geroago GALEk bahitu zuena, Peixoto zelakoan. Ohi denez, beste langile ba-tek, Jean-Mixel Larzabalek, lanean gure

kontura hasteko proposa-tu zidan, geure inprimate-gia sortzea, alegia. Gauza ginen, baina ez genuen di-rurik. Garai hartan, Felipe Huarte bahitu zuen ETak. Oroitzen naiz Donibane Lohizunen izan zela Jesus Aizpun [UPNren funda-tzailea 1979an], familiaren izenean negoziatzera. Kon-tua da Huarte askatu eta gutxira, ETako bi militante heldu zirela Hendaia, eta gure inprimategi asmoa interesgarria iruditu zi-tzailela. Bata familia abe-ratsekoa zen, eta baliteke guk hamar milioi pezeta

handik jasotzea, diru-transferentzia egin baitziguten. Horrela, Mugalde inprima-tegia ireki genuen PNV, ELA, kultur el-karte eta gainerakoentzat lanean. Hiru liburu porno ere editatu genituen Hen-daiako sex-shop batek eskatuta.

Nondik heldu zen dirua?

Madrileko ABC egunkariak esan zuen Huarteren diruarekin ireki zela Mu-galde. Guk ez genekien nondik heldu zen, baina ez genion ABCri kasurik egin. Azkenean, Batallón Vasco-Españolek lehergailua jarri eta zartarazi egin zuen Mugalde. 1975eko apirilaren 23an jarri zuen bonba. Handik hilabetera, maia-tzaren 21ean, berriz atentatu zuen in-primategiko hondarren kontra.

Kito, orduan.

Mugalde bai, baina beste bat ireki ge-nuen Donibane Lohizunen. Axular. Hala ere, egoera politikoa ez zen batere ziu-rra. Portugalen, Krabelinen iraultza izan zen 1974an. Espainiar Estatuan, Francoren errepresioak ez zuen aterru-nerik -azken bost fusilamendu haiek irailaren 27an!-, eta guri berriz beste lehergailu bat jarri zigun Batallón Vas-co-Españolek. Ez genuen berehalakoan pentsatuko, baina atentatua berriz. Franco azaroan hil zen, eta hurrengo urtean Iruñera itzuli ginen behin-behi-nean, hemen egoera inkili-mankala bai-tzegoen. Dena den, 1977an behin betiko itzuli ginen, PNVk eskatuta. Aro berria zetorren, alderdien legeztapena, exi-liatu historikoen itzulera, Espainiako Gorte konstituziogileetarako kanpaina, geure hedabideak abiarazteko lana... ■